



## EMAKUMEEN MUNDUKO MARTXA



### 2005eko EMAKUMEEN MUNDUKO MARTXA

Kanadako Emakumeen Federakundeak, 1995ean, emakumeen lehenengo munduko martxa antolatzeko erabakia hartu zuen. Geroago Pekinen burutu zen Nazioarteko IV Konferentzian, emakumeek jasaten duten indarkeria eta pobrezia aurkako mobilizazio hau mundu mailan burutzeko proposamena egin zen.

Prozesu hau 2000ko urriaren 17an bukatu zen, New Yorken, NBEren aurrean egin zen kontzentrazio batekin. Bertan, Emakumeen Munduko Martxaren bi aldarrikapen nagusi hauek bermatzen zituen 7 milioi baino gehiagoko sinadura bilketa entregatu zitzaion Koffi Annan-i.

2003ko martxoan Nueva Delhin antolatutako EMMren IV Nazioarteko Topaketetan, 36 naziotako 50 delegatuk (beste 40 naziotako delegatuek haien etorri ezinagatiko "tristezia" adierazi zuten) II Emakumeen Munduko Martxa ospatzea proposatu eta onartu zuten.

Honen helburua humanitate osoari Emakumeentzako Giza Eskubideen Gutuna proposatzea da. Gutun honek Munduko Martxan parte hartzen duten emakumeek eraiki nahi duten munduaren printzipioak jasotzen ditu: justizia, bakea, elkartasuna, askatasuna eta berdintasuna baloreetan oinarritzen den mundu bat. Gutun hau mundu osoan zehar ezagutarazteko, txandakako martxak burutuko dira eta, aldi berean, kontinente guztietako emakumeek oihal-puskaz osatutako manta handi bat ehunduko dute.

Gutuna gobernuei eta erakunde politiko, ekonomiko eta gizartekoei emakumeen kontrako indarkeria eta pobrezia desagertarazteko aldaketa sakonak egin ditzaten erabiliko da.

Pasa den ikasturtean zehar, Euskal Herrian Plataforma bat eratu zen eta STEE-EILAS hasieratik ari da bertan lan egiten, talde feminista, sindikatuen emakumeen idazkaritzak, emakume eta emakume talde batzuekin batera.

Plataformaren helburua, Munduko Martxan parte hartzeaz gain, Euskal Herriko emakumeen eskubideen aldeko gutuna gauzatzea da, ahalik eta emakume gehienek parte hartuz eta indarkeria, pobrezia feminizazioa eta gure herrian ematen den gatazka politikoa ardatzat hartuz.

Iaz, Plataformak gogotsu egin zuen lan eta Munduko Gutunari bere ekarpenak egin zizkion. Vigoko topaketetan ere egon ginen, hori izan baitzen 2004ko maiatzean Martxak antolatutako lehenengo ekintza Europa mailan, etorkizuneko Europako Ituna lan- ildo nagusia izan zelarik. Espainia eta Europako beste herrietako milaka emakume bildu zituen Vigoko foro horretara Plataformak bi dokumentu aurkeztu zituen

eztabaidarako. Horietako bat Europako Itunari buruzkoa, gure irakurketa kritikoa eta iritzi ezkorra agerian jarritz eta bestea ekologiar buruzkoa

Jardunaldi horietan beste gai ugari tratatu ziren, hala nola, indarkeria, pobreziaren feminizazioa, inmigrazioa, ekologia, hezkuntza, askatasun sexualak, antimilitarismoa, gazteria, osasuna eta eskubide erreproduktiboak

Ikasturte berria hasi dugu eta Plataformak datozen hilabeteetan zehar gure lana xedatuko duten datak kontuan hartu ditu. Duela gutxi, 2004ko abenduaren 10ean, hain zuzen ere, Kigalin, Rwandako hiriburuan, **Gizateriarentzako Emakumeen Munduko Karta** onartu zen, bertan gure delegatu bat egon zelarik.

Emakumeen Munduko Gutunaren onarpenarekin, 2005 urtean zehar aurrera eramango diren ekintzei hasiera emango diegu:

**2005eko martxoaren 8an:** Munduko Gutuna abian jarriko da Brasiletik

**2005eko martxoaren 8tik urriaren 17ra arte:** Gutunaren Munduko Errelebia eta Munduko Elkartasunezko Mantaren etengabeko muntaia. Errelebiak 53 naziotan egingo du geldialdia. Amerikan, martxotik apirilera; Europan, maiatza eta ekainan; Asian, uztaila eta abuztuan eta Afrikan, iraila eta urrian.

- **2005eko maiatzaren 24tik 27ra:** Martxaren errelebia Euskal Herrian
- **2005eko maiatzaren 28 eta 29an:** Europa mailako emakumeen asanblada, Marseilan.
- **2005eko urriaren 17an, 12etan:** Ozeanian hasi eta Ekialdetik Mendebaldera doazen munduko elkartasun feministaren 24 orduak
- **2005eko urriaren 17an:** Emakumeen Munduko Gutuna eta Elkartasunezko manta Burkina Fasora helduko dira (Munduko errelebiaren amaiera).

Emakumeen Munduko Martxa emakumeen kontrako indarkeria eta pobrezia ezabatzeko lan egiten duten taldeak biltzen dituen ekintza feministen sarea da. 163 nazio eta lurraldetako 5.500 emakume talde baino gehiago daude sare horretan. Herrialdeetako, nazioetako eta mundu osoko mugimenduetan gogoz egiten dugu lan eta, aldi berean, emakumeok gizartean betetzen eta bete behar dugun rolari buruzko hausnarketan sakontzen ari gara.

Harremanetan jarri nahi baldin baduzue honako helbide honetan sar zaitezke:

[www.marchemondialedesfemmes.org](http://www.marchemondialedesfemmes.org). Euskal Herriko plataformak ere bere web orria dauka eta helbide hau: [www.emakumemartxa.org](http://www.emakumemartxa.org). Martxari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan, zalantzarik ez, sindikatuaren egoitzekin eta bake eta elkartasunezko mundua eraikitzeko, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eta munduko pobrezia kentzeko borrokatzen duen mugimendu honen berri izango duzue.

Entresacas:

- LA CARTA SE VA A UTILIZAR PARA PEDIR A LOS GOBIERNOS Y ORGANISMOS POLÍTICOS, ECONÓMICOS Y SOCIALES CAMBIOS PROFUNDOS PARA ERRADICAR LA POBREZA Y LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES.
- DEL 24 AL 27 DE MAYO DE MAYO DE 2005 RELEVO DE LA MARCHA EN EUSKAL HERRIA.